

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3221

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 1ekoa, HABEko zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak HABE erakundea eratzen du (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea), helduen euskalduntzea gauzatzeko asmoz eta ahalik eta euskal hiztun gehien lortzeko helburuz.

Uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak helduen euskara-irakaskuntza burutzen duten euskaltegi zein beste zentro homologatuen finantzazioa arautu du.

179/2003 Dekretuaren 17. artikuluari jarraikiz, HABEk hainbat dirulaguntza ezar ditzake euskara-ikasleentzat, emaitza akademikoen baitan betiere, Dekretu horretan araututako modalitate eta euskarrietan edo homologatutako sistemen bitartez eta HABEren aurrekontu-mugen barruan.

Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaz aldatuak, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen du eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzen ditu.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduak euskararen komunikagarritasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzea arautzen du eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen ditu.

Ildo horretatik, 2022ko Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen duen eta 2021-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duen 2022ko otsailaren 16ko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren Aginduak, Hizkuntza Politika alorreko helburu estrategikotzat helduen euskalduntzea bultzatzea aurreikusten du, besteak beste euskara-ikasleei zuzendutako dirulaguntzak aurreikusiz.

Bestalde, XII. Legegintzaldi honetako gobernu-programaren 118. konpromisoaren 3. ekinbidean jasota dago euskararen ezagutza handitzeko programak eta laguntzak areagotuko direla, oro har, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezarriz eta C1 mailara arteko doakotasuna eskainiz 16 eta 30 urte bitartekoentzat.

Ebazpen honen bitartez, HABEren zuzendari nagusiak 2021-2022 ikasturterako euskara-ikasleentzako dirulaguntzak emateko baldintzak eta jarraibideak zehaztu eta deialdia egiten du.

Aurreko xedapenak aintzat hartuta, HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak (eta berau aldatzen duen urriaren 22ko 166/2019 Dekretuak) emandako eskumenez baliatuz, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak araututakoari jarraikiz eta azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak (eta berau garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak) xedatutakoa oinarri izanik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egitea eta oinarriak onartzea, 2021-2022 ikasturtean HABEren euskararen komunikagarritasun-mailak egiaztatu dituzten neurrian, betiere ebazpen honen eranskinean ezarritakoaren arabera.

2022ko uztailaren 14a, osteguna

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko uztailaren 1a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Ebazpen honen xedea da euskara-ikasleei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

2.– Ebazpen honen xede diren laguntzetarako, 2022. urtean 3.775.500 euroko kopurua jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako dagoen partidaren kontura. Era honetan banatuko da kopuru hori:

a) 3.725.500 euro, deialdi honen epealdiaren barnean, A1, A2, B1 eta B2 mailetarako, eta, 1992. urtean edo ondoren jaiotako ikasleentzat, C1 mailarako.

b) 50.000 euro, 1991. urtean edo lehenago jaiotako ikasleentzat, C1 mailarako, eta guztientzat C2 mailarako.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan jasotakoaren arabera:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan edo Trebiñuko Konderrian erroldatuta egotea, deialdi hau argitaratzen denean.

b) HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean matrikulatuta egotea 2021eko ekainaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian, eta dagozkion matrikula-prezioak euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuei ikasleak ordainduak izatea.

c) 2021-2022 ikasturtean jarraian zehazten diren HABEren komunikagarritasun-mailetako bat euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ebaluazioan gainditu izana, edo HABEren egiaztatze-deialdietan agiria eskuratu izana, edo maila horren baliokidea lortu izana:

1) HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenez deitutako 2021. urteko laugarren ebaluazio-garaian, edo 2022. urteko ekainaren arteko ebaluazioa-aldietan, A1 edota A2 mailak egiaztatu izana.

2) HABEren B1 eta B2 komunikagarritasun-mailetako atalasearen ebaluazioa euskaltegian gainditu izana.

Ikasle horiek, laguntza hauen onuradun izateko, oinarri hauetako beste baldintzak betetzeaz gain, ondorengo baldintzak ere bete beharko dituzte:

– Oro har, gutxienez 50 ikastordu jasoak izatea, eta 30 ordu udako ikastaroen kasuan.

– Asistentziari dagokionez, gutxienez ikastaroaren % 75eko betetze-maila izan beharko du: aurrez aurreko ikas-jardunean, gutxienez, euskaltegiak emandako ikastorduen % 75 hartuak izan beharko ditu; eta autoikaskuntzan, berriz, mintza-saioetan izandako asistentzia orduekin, gutxienez ikasturteko ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi beharko du.

Gaitasun-mailaren aurrerapenari dagokionez, ikasleak:

– B1 mailaren laguntza lortzeko: ikastaroaren hasieran, gehienez, B1A2 abiapuntua izan beharko du, eta bukaeran, gutxienez, B1B1 lorpen maila.

– B2 mailaren laguntza lortzeko: ikastaroaren hasieran, gehienez, B2B1 abiapuntua izan beharko du, eta bukaeran, gutxienez, B2B2 lorpen maila.

Euskaltegiak adierazpen bat helaraziko du, baldintza horiek bete direla azalduz.

3) HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenez deitutako 2021. urteko deialdietako bigarren azterketaldietan, edo 2022ko deialdietako lehen azterketaldietan parte hartu eta B1, B2, C1 edo C2 maila egiaztatu izana.

4) Halaber, dirulaguntza hauetarako eskubidea izango dute HABEren euskara-maila batekin baliokidetutako euskara-mailaren bat 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean (dagokion deialdiaren eragin-dataren arabera) egiaztatu duten ikasleak. Baliokidetza horiek azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak arautzen ditu.

d) Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

e) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikulua aurreikusitako egoeretan ez egotea.

2.– Dirulaguntzen deialdi honetatik at geldituko dira:

a) Administrazio Publikoak finantzatuta eskolatu diren ikasleak.

b) Deialdi honetako epealdian egiaztatutako maila edo mailak aurretik dagoeneko egiaztatuta daudenean.

c) Deialdi honetako ikaslearen abiapuntu-mailarik baxuena baino beheragokoa den mailaren bat gainditu edota egiaztatu duten ikasleak.

3. oinarria.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabidea egiteko, derrigorrez, <https://euskadi.eus/zerbitzuak/1038705> helbidean eskuragarri dagoen eskaera-formularioa bete beharko da.

Eskaera-formularioarekin batera, egindako ikastaroen matrikularen ordainketa-agiriak aurkeztu behar dira. Eta ikaslea HABEK datuak ofizioz egiaztatzearen aurka agertzen bada, datu horiei dagozkien agiriak.

2.– Bi modu daude eskaera-formularioa eta horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko:

a) Bide elektronikoa: eskabidea bide elektronikoz helbide honetan egingo da, «Nire karpeta»-ren bitartez: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

b) Aurrez aurrekoa: eskabidea ordenagailuan bete, inprimatu eta sinatu ondoren, aurrez aurre aurkeztu beharko da HABEren bulegoetan, Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoaren erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko

727/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

Aurrez aurreko bidea edo bide elektronikoa erabiltzeak, bai eskabideak aurkeztean, bai dokumentazioa aurkeztean, ez du behartzen prozedurako hurrengo izapideetan bide berdina erabiltzera.

3.– Elektronikoki aurkeztutako dokumentuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Pdf formatuan aurkeztuko dira.

b) Bakoitzaren gehieneko tamaina 30 Mb-koa izango da.

4.– Eskabideak aurkezteko epeak.

Kasu guztietan, interesdunek 2022ko irailaren 8tik urriaren 7ra bitarteko epea (biak barne) izango dute dirulaguntza eskatzeko.

5.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

4. oinarria.– Aurkeztutako eskabideko akatsak eta hutsuneak zuzentzea.

Eskabideak akatsak edota hutsuneak baditu, edo eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta bada, hamar laneguneko epea emango da horiek zuzentzeko. Horrela egin ezean, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da, aldez aurretik emandako ebazpenaren bidez.

5. oinarria.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

HABEren Zuzendaritza Nagusiari dagokio, Kudeaketa Zerbitzuko Ekonomia eta Administrazio Unitatearen eta Ikuskatzaitzaren bitartez, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea.

6. oinarria.– Dirulaguntza esleitzeko eta neurtzeko irizpideak.

1.– Gainditu edo egiaztatu den maila bakoitzeko, ikasleak 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetako matrikuletan ordaindutako kopurua eskura dezake, gehieneko muga hauekin:

– HABEren A1 maila: 600 euro.

– HABEren A2 maila: 800 euro.

– HABEren B1 maila edo baliokidea: 900 euro.

– HABEren B2 maila edo baliokidea: 1.000 euro.

– HABEren C1 maila edo baliokidea, 1992an edo ondoren jaio diren ikasleentzat: 700 euro.

– HABEren C1 maila edo baliokidea, 1991n edo aurretik jaio diren ikasleentzat: 150 euro.

– HABEren C2 maila edo baliokidea: 100 euro.

2.– Gainditu edo egiaztatu den maila bakoitza behin bakarrik lagunduko da diruz, ikaslearen ibilbide osoan zehar. Era berean, maila bat gainditu edo egiaztatu ondorengo dirulaguntza zuri-tzeko beharrezkoa izan den matrikularen zenbatekoa ez da konputatuko beste maila bat egiaztatu izanagatikoa laguntza zuriitzeko.

7. oinarria.– Ebazpena, jakinarazpena eta dirulaguntzaren ordainketa.

Deialdi honetan zehaztutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak ebazpenak emango ditu, 2022ko abenduaren 20a baino lehen. Ebazpenak Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), eta interesdunei «Nire Karpeta»-ren bidez jakinaraziko zaizkie.

Era berean, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, aipatutako ebazpenak HABEren web orrialdean argitaratuko dira, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitara ematen diren egun berean.

Eskabideen gainean emandako ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari, eta, horien aurka, interesdunek borondatezko berraztertze errekurtsioa aurkez diezaizkete HABEko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epe-mugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea ezetsia izan dela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 25. artikuluan zehaztutakoaren ondorioz.

Dirulaguntzen Ebazpena emanda, dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da banku-transferentzia bidez. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko dirulaguntza batzuk eman izanagatik horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

8. oinarria.– Bateragarritasuna.

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

HABEk eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin erkatzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

9. oinarria.– Onuradunaren betebeharrak.

1.– Onuradunek, oro har, Dirulaguntzaren Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.

2.– Eta, zehazki, Ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek beti izango dituzte honako betebeharrak:

a) Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzeen mende eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren mende egon beharko dute, deialdi honen bitartez eskuratu diren dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien mende ere egon beharko dute.

b) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote HABEri.

c) Laguntza ematerakoan kontuan izandako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu bada, horren berri eman beharko diote HABEri.

d) Gainera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak ezarritako betebeharrak eta gaiari ezar dakizkiokeen gainerako xedapenen ondoriozko betebeharrak ere izango dituzte.

10. oinarria.– Baldintzak aldatzea, arauak ez betetzea eta itzulketak.

Ebazpena eman ondoren, kanpoko beste dirulaguntzarik eskuratu bada, horren berri eman beharko zaio HABEri. Horren ondorioz, gerta daiteke dirulaguntza onartu duen ebazpena aldatzea, betiere deialdi honen 8. oinarrian aurreikusitako gainfinantzaketa ekiditeko.

11. oinarria.– Datuen tratamendua.

Deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak araututakoaren arabera tratatuko dira, «Ikasleen dirulaguntzen kudeaketa» izeneko tratamendu-jardueretan, ondoren zehazten den helbururako:

– Deialdi honetan aurreikusitako prozeduren kudeaketa.

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko.

Interesdunak eskubidea izango du bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko eskubidea ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, onuradunek beren datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezakete helbide honetan: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-4728/eu/>

I. ERANSKINA

2021-2022 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei zuzendutako dirulaguntzak (Kodea: 1038705)

Egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen formularioa

Instrukzio-organo hartzailea:

HABE, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Eskatzailearen datuak:

Eskatzailea _____

- Pertsona interesdun gisa ari naiz espedientean
- Ordezkarri gisa ari naiz

Identifikazio-dokumentua _____ * Zenbakia _____

* Izena _____ * Lehenengo abizena _____

* Bigarren abizena _____ * Sexua _____

Jakinarazpenak eta komunikazioak hona bidaliko dira.

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio _____

Komunikaziorako hizkuntza.

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpenak eta komunikazioak zeuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

* Euskara Gaztelania

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala.

* Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu

- Elektronikoa: «Nire Karpeta» guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Horra sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.
- Posta bidezkoa: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.

Kanal elektronikoa buruzko oharra: Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da «Nire Karpeta»-n eskuragarri jarri eta 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat joko da, eta HABEK aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

«Nire Karpeta»-n jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan, abisu bat bidaliko dizugu helbide elektronikora eta telefono mugikorrera.

*Helbide elektronikoa _____

Telefono mugikorra _____

Datuak erabiltzeko baimena.

- Nire komunikazio eta abisueterako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio ikasleen dirulaguntzak.

- **Arduraduna:** HABE
- **Helburua:** Hauekin lotutako prozedurak izapidetzea, ebaztea, jarraipena egitea eta kontrolatzea errekurtsioak, ondare erantzukizunak, ofizioz berrikusteko eskaerak, errebokazioak, hutsen zuzenketak eta administrazio bidean egiten diren beste inpu gnazio batzuk.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da, legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
 - Dirulaguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoa).
- **Hartzaileak:**
 - Foru Aldundiak
 - Organo judizialak
 - Toki administrazioiko beste organo batzuk
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk
 - Kontuen epaitegia edo erkidegoetako baliokidea
 - Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontrolerako Bulegoa, kasuan kasuko eskumena duen Foru Aldundia edo/eta Udala, Kontuen Epaitegia eta organo judizialak.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

Araudia:

– Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Ikaslearen harremanetarako datuak:

*Lurraldea _____ *Udalerrria _____ *Helbidea _____

*Posta kodea _____ *Helbide elektronikoa _____

Harremanetarako telefonoak:

Telefono-zenbakia: _____ Telefono mugikorra: _____

Bankuaren datuak:

Identifikazio zenbakia _____

Kontu korrante zenbakiaren titularra (ikaslearena, edo hura ordezkatzeko duen pertsona fisikoarena).

*IBAN kodea _____

Zein lurraldetan dauden datu fiskalak.

*Lurraldea _____

Egiaztatutako mailak edo euskaltegian B1 edo B2 maila gainditu izana.

Maila hautatu ondoren, egiaztagiria aukeratu.

A1 MAILA _____

A2 MAILA _____

B1 MAILA _____

B2 MAILA _____

C1 MAILA _____

C2 MAILA _____

Egiaztatutako maila edo euskaltegian gainditutako maila adierazita: BAI/EZ.

Ordainagiriak. *Adierazten dut honako diru-kopuruak ordaindu ditudala matrikula gisa.

2021-2022

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2021-2022

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2021-2022

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2020-2021

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2020-2021

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

2020-2021

Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa: _____ Zenbatekoa (eur.): _____

 *Hemen adierazitako zenbatekoen ordainagiriak "Matrikula ordainagiriak" eranskinean erantsiko dira.

Erantzukizunpeko adierazpenak.

Aitortzen dut:

Bateragarritasun-adierazpenak.

- Ez dut dirulaguntzarik jaso xede eta helburu berarekin inolako udaletatik edo/eta udalez gaindiko beste administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuetatik 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetan. Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu diot eta eman egin didate (atal honetako datuak "Beste dirulaguntzak" atalean zehaztuko ditut).

Zehapen-adierazpenak.

- Ez dut dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten didan zehapen administratiborik edo zehapen penalik.
- Ez dut dirulaguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik (sexu-bereizkeriagatik debekuak barne).
- Itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta ditut.

Orokorrak.

- *Betetzen ditut indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- *Adierazten dut hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudana dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Ezingo da dirulaguntza eskubideaz baliatu, Administrazioak hurrengo egitateren baten berri izan duen unetik aurrera:

- Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada.
- Administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena.
- Administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu adierazten dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa.

Aurrekoaz gain, gerta liteke erantzukizun penal, zibil edo administratiboak izatea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Konpromiso-adierazpena.

- *Eskaera hau egin ondoren, xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen aldetik beste dirulaguntzarik edo laguntzarik jasoz gero, HABEri horren berri emango diot.

Beste erakunde publikoek ikasleei bideratutako dirulaguntzaren onarpena.

- Baimena ematen dut nire datuak erabiliak izan daitezzen Gipuzkoako Foru Aldundiak edo beste erakunde publiko batek deitutako dirulaguntzak izapidetzeko.

Baimen hau zalantzarik gabea eta epe-mugarik gabekoa da, eta erantzukizunpeko adierazpen honen bitartez ematen dut. Era berean, honen bitartez, aipatutako araudian aurreikusitakoa kontsultatzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak HABEren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia) gauzatu ahal izango direla adierazten dut.

Jasotako dirulaguntza publikoei buruzko ziurtagiria

- Baimen hau ematen diot HABEri: erroldatuta nagoen udalerriko udalari edo beste edozein administrazio publikori helburu berarekin eman dizkidaten dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzeko.
- Baimen hau ematen diot erroldatuta nagoen udalerriko udalari edo beste edozein administrazio publikori: helburu berarekin eman dizkidaten dirulaguntzei buruzko informazioa emateko HABEri, dirulaguntzen bateragarritasuna bermatu ahal izateko.

Ofizioz egiaztatzea

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu ondorengo datuak, elkarreragintasan sistemen bidez, dagokion Administrazio eskudunean:

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea (Estatistika Institutu Nazionala – EIN).
- Euskararen ezagutza mailari buruzko datuak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB).
- Zerga betebeharren ordainketa egunean izateari buruzko datuak, EAEko Foru Aldundietan eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzian.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko datuak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian (GSDN).

Ofiziozko egiaztatze-prozedura horren aurka egonez gero, egin klik hurrengo laukian:

- Aurka egin nahi diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz egiaztatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onuraduna datuok ofizioz egiaztatzearen aurka agertzen bada, Errolda, Euskararen ezagutza mailaren datuak, eta Zerga zein Gizarte Segurantza arloko dokumentuak aurkeztu beharko ditu eskabide-orriarekin batera.